

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 48/2018 Foru Dekretua, irailaren 18koa. Basozaintza makineria eskuratzeko diru laguntzen oinarri arautzaileak onartzea eta baita laguntza horien 2018ko deialdia ere

Arabako lurralde historikoaren ezaugarri bat da mendi ugari izatea, gehienak publikoak, gainera, eta haiek onik zaindu eta hobetzeko eginkizuna haien jabeena izatea, zeinek enpresa espezializatuak baimendu eta kontratatu behar izaten baitituzte zura moztu eta ateratzeko, nahiz haiek onik zaintzeko eta mantentze lanetarako. Mendiek onura ugari sortzen dute, behar den lehengaia ematen baitute produktu berriztagarriak eta ingurumenarekiko begirunetsuagoak egiteko, eta eginkizun garrantzitsua baitute ongizate ekonomikoaren, dibertsitate biologikoaren, karbonoaren ziklo orokorraren, oreka hidrológicoaren, higaduraren kontrolaren eta hondamendi naturalen prebentzioaren arloan. Gainera, eginkizun sozial eta aisialdizkoa ere betetzen dute.

Beste alde batetik, beharrezkoa da zura mugitzeko ahalmena hobetzea eta zura lehengai lehiakor gisa balia dadin sustatzea, horretarako sektore horren lehiakortasuna gehituz, egungo beharrei erantzuteko mailan egon dadin beharrezkoak diren inbertsioak sustatzearen poderioz.

Horretarako, Nekazaritza Sailak, zeinek, 27/1983 Legearen 7. a)-tik 9. era arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera (27/1983 Legea, azaroaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremani buruzkoa), eskumen eksklusiboa baitu mendien arloan, uste du bidezkoa dela basogintzako enpresa txiki eta ertainek basogintzako makineria eskuratzen gauzatzen dituzten inbertsioak sustatzea, makineria mota horren parkea berritzearen teknologia berriz hornitutako tresna eta gailu berriekin, lanak errazago, hobeto eta seguruegi egin daitezela.

Kontuan hartuta laguntza lerro hau Foru Sektore Publikorako dirulaguntzen 2017-2019rako Plan Estrategikoaren "nekazaritzako azpiegiturak hobetzea" izeneko helburu estrategikoaren barruan dagoela (Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 21eko 921/2016 Erabakiaren bidez onetsi zen plan hori, baina, ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 821 Erabakiak aldatu egin zuen).

Kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastuen aurrekontuan 40.1.01.42.01.770.00.07 "Basogintzako makineriarako deialdia" izeneko partida dagoela, 150.000,00 euroz hornitua, laguntza lerro honetarako, hain zuzen.

Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehena. Onestea enpresa txiki eta ertainek basogintzako makineria erosteko laguntzak arautzen dituzten oinarriak; Foru Dekretu honen eranskin gisa doaz.

Bigarrena. Laguntza lerro horren 2018ko deialdia onartzea, xehetasun hauen arabera:

Epea: Eskariak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Kreditu erreserba: 150.000 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018rako gastuen aurrekontuetako 40.1.01.42.01.770.00.07 "Basogintzako makineriarako deialdia" izeneko partidaren kontura.

Inbertsioak gauzatu beharko dira deialdi honetako diru-lagutzen eskaera egiten denetik 2018 abenduaren 31ra bitartean.

Dagokion diru-laguntza ordaintzeko beharrezkoak diren agiriak aurkezteko azken eguna 2018ko abenduaren 31 izango da, halaber.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da 11/2016 Foru Arau urriaren 19koaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren % 100eraino.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiari ahalmena ematea behar adina xedapen onets ditzan Foru Dekretu hau garatu eta aplikatzeko, eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteroko deialdien ebazpenen kontra berraztertzeko errekurtsorik aurkeztuz gero, ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 18a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

Foru Dekretu honen xedea da basogintzako makineria erosteko laguntzak arautzen dituzten oinarriak ezartzea, basogintza sektorearen lehiakortasuna sustatzearen, zura mugitzeko gaitasuna hobetzearen eta zura lehengai gisa balia dadin sustatzearen.

2. artikulua. Pertsona eta entitate onuradunak

Foru Dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradun izango dira ETEak, banakako pertsona enpresariak eta sozietate zibiliak edo ondasun erkidegoak, betiere 3. artikuluan adierazten diren betebeharrak betetzen badituzte.

3. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak

3.1. Oro har:

– Basogintzako sektoreak jarduera ekonomiko bat gauzatzea, eta jarduera hori Arabako lurralde historikoko baso eta oihan eremuetan gauzatzea.

– Zerga egoitza eta egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan izatea.

– Ez ezarri izana zigorrak edo administrazio zehapenik dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko ezintasuna ezartzen duenik, eta ez egotea horretarako ezgaitzen duten legezko ezein debekuren pean, sexu diskriminazioagatik 4/2005 Legearen amaierako xedapenetako seigarrenean xedatutakoak barne.

– Ez egotea itzulketa edo zehapen prozedura baten pean.

– Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik edukitzea. Sozietate zibil edo ondasun erkidegoei dagokienez, hala direla egiaztatu beharko da, bai sozietateari buruz, bai bazkideei edo erkidegoko kideei buruz.

– Hala badagokio, dirulaguntzak itzuli beharregatik ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzea, 11/2016 Foru Arauak ezartzen duen moduan (urriaren 19koa, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzei buruzkoa).

3.2. Banakako enpresarien kasuan, aurreko apartatuan orokorki ezarritako betebeharez gain, honako betebeharrak hauek bete beharko dira:

– 18 urte beteta izatea eta 65 urte bete gabe, laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen den unean.

– Basogintzako jarduera ekonomiko edo profesionaletako eteknikak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren pekoak izatea.

3.3. ETEen kasuan, horrez gain, honako betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

– Legez eratuta egotea eta dagokion erregistroan inskribatuta egotea, dagokion forma juridikoarekin.

– Gutxienez 250 pertsona enplegatzea.

– Ez edukitzea beste enpresa baten edo batzuen ehuneko 25 adinako partizipaziorik edo handiagoarik; horiek, gainera, 250 langile baino gutxiago enplegatu behar dituzte guztien artean.

– Urteko negozio bolumena ez izatea 50 milioi euro baino handiagoa, edo haien urteko balantzeko orokorra ez izatea 43 milioi euro baino handiagoa.

– Sozietate egoitza eta zerga egoitza Araban edukitzeko betebeharra betetzen dela joko da ETEen egoitza horiek Arabako lurralde historikoan badaude, eta, gainera, ETE horietako sozioen ehuneko 50ek ere, gutxienez, guztien artean sozietate horren kapital sozialaren gutxienez ehuneko 50eko partizipazioa daukatelarik, sozietate egoitza eta zerga egoitza Araban dutelarik.

– Sozietate zibilen edo ondasun erkidegoen kasuan, sozioen edo erkidegoko kideen ehuneko 50ek gutxienez, guztien artean sozietate horren kapital sozialaren ehuneko 50 gutxienez daukatelarik, 18 urte beteta badituzte eta 65 urte baino gutxiago badituzte laguntza eskabidea aurkezteko epea amaitzen den unean.

3.4. Sozietate zibilak edo ondasun erkidegoak, Foru Dekretu honen ondorioetarako, ETEen pareko izango dira.

4. artikulua. Inbertsioak onartzeko betebeharrak orokorrak

Inbertsioen gastuak diruz lagungarriak izan daitezzen, honako betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

4.1. Diruz lagundu ahal izango da basogintzako makineria eskuratzea zuzentzeko eta enborrak basotik ateratzeko, hain zuzen, makina mota hauek: enborrak herrestan ateratzeko gailuak, autokargatzaileak, basogintzako garabiak, zura ateratzeko basogintzako kableak, zura zatitzeko makinak, birrinketarako, ezpal bihurtzeko eta/edo biomasa paketatzeko prest uzteko behar diren lekuan bertako prozesurako ekipoa, eta zura ateratzeko beste antzeko batzuk.

4.2. Makineria berria izan beharko da, eta basogintzako aprobetxamenduak edo zerbitzuak egiteko izan beharko da.

4.3. Ez dira diruz lagundu ahal:

– Basabideak, gorpil kateak edo trackak eta zenbait inbertsio, mozketara egingo den gunearen inguruetara eramateko diseinatutako zura prozesatzeko ekipoa eta instalazio mugikorretan egiten direnak.

– Makineria birjartzeko inbertsioekin lotutakoak, artean zazpi urteko epea bete ez dutenak.

– Bigarren eskuko ekipoa eta makineria.

- Eskuzko tresneria, hala nola motozerrak eta antzekoak.
- Basogintzaz besteko garraiorako ibilgailuak.
- Pertsonak garraiatzeko ibilgailuak.
- Obra zibileko makinieria.
- BEZa, bai eta beste edozein zerga edo tasa, ezingo dira diruz lagundu.

5. artikulua. Laguntzen era, ehunekoa eta zenbatekoa

5.1. Laguntzak, izan, zuzeneko dirulaguntzak izango dira, gastu onetsiaren gaineko ehunekoen araberakoak. 5.2. Laguntzaren zenbatekoa, berriz, inbertsio zenbateko onetsiei ehuneko 30 aplikatuz ateratzen dena izango da.

6. artikulua. Lehentasun irizpideak

6.1. Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarrituz:

a. Onuradunaren tipologiaren arabera:

a.1. 41 urtetik beherako gazteek deialdi hau ALHAOn argitaratzen den unean sustatutako inbertsio proiektuak: 5 puntu. Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, 5 puntu hauek emango zaizkio, baldin eta bazkideen arteko ehuneko 50 gutxienez gazteak badira, eta pertsona juridikoen kapital sozialaren ehuneko 50 gutxienez gazte horiei badagokie.

a.2. Emakumeek sustatutako inbertsio proiektuak: 5 puntu. Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, 5 puntu hauek emango zaizkio, baldin eta bazkideen arteko ehuneko 50 gutxienez emakumeak badira, eta pertsona juridikoen kapital sozialaren ehuneko 50 gutxienez emakume horiei badagokie.

Nolanahi ere, urteroko deialdia ALHAO argitaratzen den unean diren pertsona sustatzaileen edo bazkideen zerrenda hartuko da kontuan.

b. Enpresaren ezaugarriengatik:

b.1. Kontratutako pertsona langileen kopurua (urteroko deialdiaren aurreko abenduaren 31n):

0-5: 10 puntu.

6-10: 8 puntu.

11-15: 6 puntu.

16-25: 4 puntu.

26 baino gehiago: 2 puntu.

b.2. Eskabidea egin aurrekoxe ekitaldian enpresak izan duen fakturazio bolumenaren arabera:

0,5 milioi eurora arte: 10 puntu

0,5 milioi euro 5 milioi euro artean: 8 puntu

5 milioi euro eta 10 milioi euro artean: 6 puntu

10 milioi euro eta 15 milioi euro artean: 4 puntu.

15 milioi euro baino gehiago: 2 puntu.

b.3. Deialdi hau ALHAOn argitaratu aurrekoxe urtean formazio ikastaroetan parte hartu izana. Puntu hauek egokituko litzaizkioke baldin eta onuradunak edo haren langile enplegatuek egiaztatzen badute etengabeko formazioko ikastaroetan parte hartu dutela, gutxienez 20 ikastordu eginez, bere produkzio jarduerarekin lotutako gaietan: 5 puntu. 5 puntu hauek egokituko zaizkio, baldin eta haren bazkideen eta/edo langileen ehuneko 50ek egiaztatzen badu formazio hori jaso dutela.

c. Inbertsio bolumenaren arabera:

c.1. Espedientean makinerian egindako inbertsio bakoitzaren kostuaren arabera.

30.000 euro arte: 15 puntu

30.001 euro 100.000 euro artean: 12 puntu.

100.001 euro eta 300.000 euro artean: 8 puntu

300.001 euro eta 500.000 euro artean: 4 puntu.

500.001 euro baino gehiago: 2 puntu.

6.2 Inbertsio plan batek lor dezakeen gehieneko emaitza 50 puntu izango da.

6.3 Pertsona edo entitate eskatzaile bakoitzari zenbateko dirulaguntza dagokion determinatzeko, puntuaren balio bat ezartzen da, honela kalkulaturik:

Deialdia zein aurrekontu kreditu gutzirakoari esleitzen zaion, kreditu hori zatitu egingo da pertsona eta entitate eskatzaile guztiek lortutako puntuen gutzirako baturaren emaitzaren artean, eta horrela ateratako emaitza izango da puntuaren balioa. Laguntzaren zenbatekoa, berriz, puntuaren balioa eskabide bakoitzaren puntuen kopurua adina bider ateratzen den emaitza izango da, betiere 5. eta 7. artikuluetan ezarritako mugak errespetatuz.

Baldin eta lehenbiziko esleipena egin ostean, artean ere ez bada banatu aurrekontu kreditu osoa, puntuaren balioa kalkulatu da behar adina alditan, eta, kasu horretan, aintzat hartuko da sobera geratutako kreditua eta 5. eta 7. artikuluetan ezarritako mugetara iritsi ez diren espedienteetako puntuen batura.

Nolanahi ere, beti baliatu beharko da osoki, agortu arte, aurrekontu kreditu baliagarria.

6.4. Baldin eta kreditu baliagarria ez bada aski laguntza hori eskuratzeko betebeharrak guztiak betetzen dituzten eskabideetarako, hainbanatu egingo da, aurrekontu kreditu baliagarriaren heinean.

7. artikulua. Gastu onargarriaren mugak

7.1 Pertsona edo entitate onuradun bakoitzeko eta urteko lagundu ahal den inbertsioa edo lagundu ahal diren inbertsioen baturaren emaitza, neurri honetan, 125.000 euro izango da gehienez, eta 3.000 euro gutxienez, oro har.

7.2. Eskatzaileko eta urteko inbertsio bakar bat onartuko da.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea, modua eta lekua

8.1. Laguntza eskabideak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, edo Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetako edozeinetan —hargatik eragotzi gabe 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoa (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea)—, eta eskatutako inbertsioa hasi aurretik, urteroko deialdian ezarritako epean, betiere.

8.2. Eskaerak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta harekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

8.2.1 Eskatzailearen NAN/IFZren fotokopia. Ustiategi-elkartuak izanez gero, eratze agiria aurkeztuko da, bai eta kide bakoitzaren NANaren fotokopia ere.

8.2.2. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzen duen agiria.

Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar pertsona edo entitate eskatzaileak Nekazaritza Sailari baimena ematea zerga betebeharratan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria zuzenean eskuratzeko. Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta, orduan, berak aurkeztu beharko ditu betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

8.2.3 Hala balegokio, hirugarrenen fitxa, banku datuekin, laguntza kobratzeko.

8.2.4. Erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko galarazten dion zehapen penalik edo administrazio zehapenik ez duelakoa eta horrelako ezein legezko debekuren pean ez dagoelakoa.

8.2.5. Erantzukizunpeko adierazpena, laguntzak itzultzeko prozedura batean edo zehapen prozedura batean ez dagoelakoa, eta, hala balegokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak izanez gero, horiek beteta dituelakoa, 38/2003 Legeak ezarritako eran (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra).

8.2.6. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren goiburua (JEZ), pertsona edo entitate eskatzailea urteroko deialdia argitaratu aurreko data batean inskribatuta dagoenekoia ; eta, inskribatuta, Arabako Foru Aldundian egon beharko du inskribatuta.

8.2.7. Eskabidea aurkeztu aurreko urteko jardueren memoria, eta 347 erdua, hirugarren pertsonetik eragiketen urteko aitortpenarena, egiaztatuz Arabako lurralde historikoko mendi-tan gauzatu dela bere jarduera. PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo SZ sozietateen gaineko zergaren azkeneko ekitaldiko aitortpen aurkeztuaren kopia.

Enpresa sortu berrien kasuan, lanak egiteko konpromisoa aurkeztuko da, eta laguntza emateko baldintza izango da konpromiso hori betetzea.

8.2.8. Gizarte Segurantzaren txostena, non jaso behar baita urteko deialdiaren aurreko urteko abenduko likidazioaldiko langileen zerranda izenduna.

8.2.9. Erosi beharreko makinaren eta haren aurrekontuaren ezaugarrien xehetasuna. Diruz lagun daitezkeen gastuen zenbatekoak gainditu egiten baditu azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuak, kontratu txikirako ezarritako kopuruak, eskatzaileak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, salbu eta diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri berezien ondorioz merkatuan ez badago erakunde kopuru nahikorik hori eman edo hartaz hornitzeko.

8.2.10 ETEen kasuan, gainera, eratzeko eskritura aurkeztuko da, dagokion erregistroan behar bezala inskribatua, bai eta enplegatu kopurua egiaztatzen duten agiriak eta fakturazio bolumena, eskabidea aurkeztu aurre-aurreko urtekoak.

8.2.11 Erantzukizunpeko aitortpena, xede horretarako beste laguntzarik eskatu ez duelakoa, edo, eskatu baditu, jaso beharreko gutxi gorabeherako laguntza zein entitateri eskatu dion adieraziz.

8.3. Edonola ere, Foru Aldundiak bere eskubidea izango du dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei beharrezko deritzon dokumentazio osagarria galdegitea, eskaerak behar bezala balioetsi ahal izateko.

8.4. Eskaeran akatsik edo hutsik atzematen bada edo eskaera osatu gabe badago, eskatzaileari errekerimendua igorriko zaio jakinarazpena jaso eta 10 egun balioduneko epean hori konpon dezan edo osatu dezan. Epe hori igarota, dena delako akatsa konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi duela joko da, betiere 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoaren arabera (39/2015 Legea, urriaren 13koa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena).

8.5 Laguntza eta ordainketa eskaerak osorik edo partzialki ezeztatu ahal izango dira edozein unetan, 809/2014 (EE) Arautegiaren 3. artikulua ezarritako mugak kontuan hartuz.

9 artikulua. Izapidetzea

9.1 Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, espedienteak Mendi Zerbitzuak bideratuko ditu, eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta horri buruzko txosten teknikoak egingo du.

9.2 Espedientea bideratzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehaztu eta egiaztatzearen. Interesatuak ez badu ezer egiten izapide hau betetzeko, 39/2015 Legeak 73. artikuluan xedatutakoa beteko da (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

9.3 Foru Dekretu honetan aipatzen diren laguntzak lehia bidez emango dira, oinarri hauetan jasotzen diren balorazio irizpideen arabera.

9.4 Behin espedienteak aztertuta, kide anitzeko balorazio organoak ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena prestatuko du, ezarritako lehentasunen arabera irizpideak aplikatuz eta aurrekontu baliagarria kontuan hartuz. Orobat, hala badagokio, espediente bakoitza ezesteko arrazoiak zehaztuko ditu eta baietsitako espedienteek betebeharrak betetzen dituztela azalduko du.

9.5 Honako hauek izango dira laguntzak emateko kide anitzeko balorazio organoko kideak:
Mendi Zerbitzuaren burua.

Mendi Zerbitzuari atxikitako teknikari bat, laguntzetan aditua.

Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

10. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

10.1 Foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarrean den araudiaren arabera.

Emandako ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, indarrean den araudiaren arabera. Dena den, aukerako berraztertze errekurtsioa ere jarri ahal izango da.

10.2. 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako (39/2015 Legea, urriaren 13koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa), gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, administrazioaren isiltasunak eskabidea ezetsi dela esan nahiko du, 38/2003 Lege Orokorrak 25.5 artikuluan xedatutakoaren arabera (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra).

10.3 Laguntzak emateko ebazpenean, espediente bakoitzeko, honakoak determinatuko dira: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, zein inbertsioetarako eman den eta diruz lagundutako gastua, bai eta dirulaguntzen finantzaketaren jatorria ere. Ebazpena negatiboa izanez gero, arrazoiak zehaztu beharko da.

10.4 Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta, ere berean, honako informazio hau guztia ere adieraziko da jakinarazpenean: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ehunekoa, diruz laguntzen den inbertsioa, inbertsioaren zein gastu lagundu den diruz, gauzatzeko epea, urtekoak eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoiak.

11. artikulua. Laguntzen ordainketa

11.1 Inbertsioa gauzatatutakoan ordainduko da laguntza, laguntzaren onuradunak ordaintzeko eskabidea egin ondoren eta honako agiri hauek guztiak aurkeztu eta gero:

Egindako gastuen justifikazioa, jatorrizko faktura eta konpultsatzeko kopia aurkeztuta. Jatorrizko faktura zigilu baten bidez kontrolatuko da, zeinak adieraziko baitu Arabako Foru Aldundiak diruz lagundu duela.

Faktura ordaindu izanaren egiaztapena, jatorrizko agirien bidez edo agiri konpultsatu hauen bidez: bankuko jatorrizko ziurtagiria, gutxienez transferentzia edo ordainketaren zenbatekoa, data eta onuraduna zehaztuta dituena; posta arruntez jasotako bankuko jatorrizko laburpenak, kasuan kasuko mugimenduak jaso dituen kontu korronteen libreten kopia konpultsatua edo bankuko laburpen elektronikoak, e-mailez jasotakoak, edo ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiludun agindu telematikoak.

Ez da onartuko eskudirutan egindako eragiketarik, baldin eta 2018 ekitaldirako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekokoa bada (edo atzerriko moneta baten kontrabaliokoa) edo zenbateko hori baino handiagokoa bada.

Aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasunak edo zerbitzuak ematean zatikatu diren eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoen batuketa egingo da.

Diruz lagundu den makinaren matrikulazioaren egiaztagiria, baldin eta nahitaezkoa bada.

Erantzukizunpeko adierazpena, xede horretarako bererako beste diru sarrera edo dirulaguntzarik jaso ez delakoa, edo, hala balegokio, xede horretarako bererako jasotako beste dirulaguntza batzuen zerrenda, zenbatekoa eta dirulaguntza eman duen entitatea adieraziz.

Kudeaketa organoek eskatu adina dokumentazio.

11.2. Ordainketak, berriz, onargarri edo diruz lagungarritzat jotzen diren zenbatekoak oinarritzat hartuta egingo dira, ordaintzeko eskabideari egin beharreko administrazio kontrolak egin ondoren.

Dirulaguntza ordaindu ahal izateko, diruz laguntzeko modukotzat jorik gauzatu den inbertsioa izan beharko da handiagoa ezenez diruz lagundu ahal den gutxienerako zenbateko 7.1 artikuluan determinatua.

Dirulaguntza ordaintzeko, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean eduki beharko dira.

12. artikulua. Onuradunaren betebeharrak

Oro har, laguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

12.1. Emandako diru laguntza onartzea eta eman zaion erabilera zehatzerako baliatzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Dirulaguntza esleitu zaiolako jakinarazpena jaso eta hamar egun baldioduneko epean onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egin, adituko da onartu duela.

12.2. Makineria dirulaguntza esleitzeko ebazpenean ezarritako epean eskuratzea.

12.3. Dirulaguntzaren xede izan den makineria erabili eta jabetzan eduki beharko du onuradunak gutxienez 7 urtean. Epe horretan ezingo da eskatu beste dirulaguntzarik diruz lagundutakoaren antzeko eginkizunekiko makineria eskuratzeko.

12.4. Dirulaguntzaren xede izan den makineria nekazaritzako makinaren erregistro ofizialean inskribatzea, eta, beharrezkoa izanez gero, matrikulatzea.

12.5 Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari eta Kontuen Euskal Epaitegiari ematea beren eginkizunak betetzen ari direlarik eskatzen duten informazioa, Foru Dekretu honen babesean jasotako dirulaguntzei buruzkoa.

12.6 Europar Batasuneko, estatuko, erkidegoko edo foru aldundiko arautegiek ezarritako kontrolak igarotzea, administraziozkoak, tokian bertakoak, gerorakoak edo kalitatezkoak.

13. artikulua. Ez-betetzeak

13.1 Pertsona edo entitate onuradunak honako foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo beharrezkoak diren betebeharrak guztiak bete gabe eskuratuz gero laguntza, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interesei dagokien zenbatekoa ere, eta laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharreko zenbatekoak gutxituko zaizkio, hargatik eragotzi gabe 11/2016 Foru Arauak xedatutakoaren arabera dagozkion ekintzak (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzei buruzkoa).

13.2 Epe zehatz batean diruz lagundutako inbertsioa atxikitzeari buruz 12.3 artikuluan ezarritako konpromisoa ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako laguntza itzuli beharra edo atxikia izan ez den denbora tartearen heinean hainbanatu beharra.

13.3 Inbertsioa ez bada gauzatzen dirulaguntza esleitzeko ebazpenean ezarritako epean, galdu egingo da Foru Dekretu honetan aipatzen diren laguntzetako edozein jasotzeko eskubidea inbertsioa gauzatu behar zen deialdiaren osteko bi deialdietarako.

13.4 Itzultzen diren zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera izango dira, legezko ondorioetarako.

13.5 Nekazaritza Sailaren foru aginduaren bidez erabakiko da dirulaguntzaren itzulketa osoa edo partziala, ikuskapen edo kontrol txostena eta itzultzeko proposamena ikusirik eta onuradunari entzun ondoren.

13.6 Laguntzak osorik edo partzialki itzultzeko prozeduraz gain, gerta liteke zehapen prozedura ere abiarazi beharra 11/2016 Foru arauan aurreikusitako arau hausteengatik (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzei buruzkoa).

14. artikulua. Araubide juridikoa

Foru Dekretu honetan jasotako laguntzen onuradunek 11/2016 Foru Arauan ezarritako araudia bete beharko dute (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzei buruzkoa).

15. artikulua. Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin

15.1 Dekretu honetan garatzen diren laguntzak bateraezinak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede eta helburu bererako emandako beste edozein laguntzarekin.

15.2 Azken kasu horretan, laguntzen zenbatekoa (bera bakarrik edo beste batzuekin batera) ezingo da izan onuradunek gauzatu beharreko jardueraren edo laguntzari zegokion helburuaren kostua baino handiagoa. Muga hori gainditzen bada bestelako laguntzak eskuratu direlako, foru dekretu honetan aurreikusitako laguntzak emateko ebazpena aldaraziko da.

16. artikulua. Laguntzen finantzaketa

Dekretu honetan xedatutako laguntzetarako baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik baino ez dira etorriko, deialdi bakoitzean ezarritako zenbatekoen mugarekin.